

## *Begoña Olabarria Zabalo*

*Antzuola,  
Gipuzkoa  
(1928-2017)*

Aurkibidea

**Biografia**



Antzuolako Ondarre etxean jaio zen 1928an. Ama Lizarraga auzoko Udala baserrikoa zuen eta aita Irimoegigoena auzoko Iribar baserrikoa. Bost anai-arreba ziren. Eskola Txikian ibili zen lehenbizi 3-6 urte bitartean, eta geroago Eskola Nagusian 13 urtera arte. Etxeko tabernaren ardura hasieran amak zeraman arren, gero Begoña egin zen Ondarre tabernaren kargu, itxi artean. Senarra Kaseta baserrikoa du.

# Zintak

## ANT-075

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Antzuola
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-04-01
- **Iraupena:** 40 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa
- **Transkribatzailea(k):** Elortza, Kepa

## Pasarteak

### 1. Familia tabernaria

- **Erref:** ANT-075/003
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:01:50. **Bukatu:** 00:03:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

#### Laburpena:

Ondarre etxean Ondarre taberna zegoen. Osaba-izebak hasi ziren tabernarekin eta gero Begoñaren gurasoek, ama Udala baserrikoa eta aita Iribarrekoa, jarraitu zuten bertara ezkondu zirenean. Begoña izan zen alabarik gazteena.

#### Transkripzioa

-Zu jaixo ziñanien etxien tabernia zeukatzuein, esan dostazu ezta?

-Bai, bai.

-Ondarre izenakin tabernia?

-Ondarre, bai. Aspaldiko tabernia zan haura.

-Zer ziren, zeure aitta-amak ziren ugezabak-edo?

-Ez. Lehelengo lehelengo zeuken zer batzuk, tio Eujenio eta tia Pauliña esaten zotsen. Eta gero gure ama baserrikua zan, Udalako baserrikua zan, Udala baserrikua zan.

-Antzuolarra?

-Bai, Antzuelako baserri batekua zan. Eta etorri zan ba hola, kriada bezela-edo, umetan. Lehen badakizu, umetan. Eta gero ha, tia harek eta tio harek hartu in zeuben euren dako moduan, eta gero ba etxien geratu zan eta gero ezkondu zan nere aittakin, Bernardo. Ama zan Guadalupe Zabalo.

-Orduen ama Udalatik etorri zan hona?

-Udalatik, Udala baserriatik.

-Eta aitta zan hemengua?

-Ez, aitta zan beste baserri batekua, Iribarkua.

-Orduan aitta ezkondu zan hona, Ondarrera?

-Bai, ama hemen zeguen, hona etorri zan aitta.

-Eta zu zer ziñan, alabarik...

-Gaztena, bai, ni gaztena. Zaharrenak larogeta hamar urte dauzka, anaia hil zan eta beste bi dare hementxe goixan, zaharrak, bueno, Larogeta hiru urte eta sei urte, larogeta bost hiru ta sei, larogeta sei.

## 2. Gerra denboran ere eskolara

- **Erref:** ANT-075/004
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:03:48. **Bukatu:** 00:06:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Baserria » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak

### Laburpena:

<p>Maria maistrarekin hasi zen "eskola txikian". Hiru urtetatik sei urtera arte eskola txikian ibilita pasatu zen handira, eskola nazionaletara, harik eta 16 urte izan zituen arte. "Señorita Dora" eta "Señorita Nati" izan zituen nazionaletako maistrak, nafarrak biak. Gerra denboran eskola ez zen itxi. <em>Cara al Sol</em> kantatzen zuten eta euskara debekatu egin zieten. 'Txinientzako' omen ziren euskaraz mintzatzeagatik jartzen zieten 10 zentimoko isunak.</p>

### Transkripzioa

-Zu eskolara fango ziñan.  
-Bai horixe.  
-Eskola Txikixan edo?  
-Lehenengo eskola txiki bat, hori. Maestria zan Maria, Maria maestria.  
-Zenbat urtekin hasi ziñan hor?  
-Txiki-txikittatik, hiru urtekin igual. Zeatikan gero eskola nagusittara sei urtekin jua nitzan. Sei urtekin eskola nagusixan hasi nitzan.  
-Eskola nagusixak nazionalak edo horreik ziran?  
-Horrek ziran, bai. Nazionalak. Ni betik eskola nazionaletara jun nitzan.  
-Hirutik sei arte eskola txikiñian...  
-Hori. Eta gero eskola nazionaletara.  
-Noiz arte?  
-Ba hamasei urte arte-edo hor ibilli giñan, zeozer ikasiko ete giñan, baiña ez giñuan ezer ikasi eta.  
-Hamahiru urte. Hainbeste urtietan zerbait ikasiko zebe horregatiok.  
-Bai, ahaztu jaku danak.  
-Maria euen eskola txikiñian maistra, eta bestien, eskola nagusixan?  
-Eskola nagusixan hasi giñanien zan Señorita Dora, Señorita Dora eta Señorita Nati. Ni harekin ibili nitzan.  
-Bi horreikin?  
-Bai. Panplonakuak-edo, naparrak ziren.  
-Naparrak?  
-Naparrak.  
-Zu hiru urtekin fan baziñan, ondiok gerra aurrian, ezta?  
-Honbre! Gerra aurrian, gerra denporan ibilli giñan eskolan eta. 'Cara al Sol'-ta kanta eta horrek danak itten giñuzten!  
-Hori gerra ostien izango zan.  
-Gerra denporan!  
-A, gerra denporan be eskolia egon zan?  
-Klaro, eskolia egon zan bai, bai, bai. Maistra bat bialdu in zebe, bialdu in zebe.  
-Gorrixa zan hala?  
-Bai, kuttuak pasau zittuan beriak. Hilda dago, baiña pasau zittuan beriak. Eta hamasei urte arte gero eskola nazionaletan.  
-Zuek orduan gerra denporan ez zeuen etenaldirik euki eskolan?

-Ez, ez, ez. Euki giñuan eskolia, 'Cara al Sol' kantau ta...  
-Eta beuen diferentziarik gerra aurretik gerra denporara eskolan? Euskeria eta?  
-Bai, ez doskuen lagatzen. Euskeraz itten ez doskuen lagatzen.  
-Baiña aurretik bai, ezta?  
-Aurretik bai, eskola txikixan-eta bai, baiña eskola nazionaletan ez doskuen lagatzen euskeraz egitten.  
-"Prohibido".  
-"Prohibido", eta itten zoskuen aste bukaeretan, zapatuan, euskeraz itten zebanak azkenengo egunian, euskeria itten zeban momentuan, haurak astelehenian eruan bihar zeban hamar zentimo txinuendako.  
Txinituendako, pentsa eizu zelako kastigua.  
-Hamar zentimoko multia?  
-Hamar zentimoko multia euskeraz egittiarren.

### 3. Eskolako eta kongregazioko zigorrak

- **Erref:** ANT-075/005
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:06:58. **Bukatu:** 00:09:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Politika » Euskara eta politika

#### Laburpena:

<p>Isuna ekiditeko, batak besteari egiten zizkion gaiztakeriak azaltzen dizkigu. <em>Hijas de Mar&iacute;a</em> kongregazioko kide izan zen Bego&ntilde;a. Mutilekin dantza lotuta egitea debekatuta zuten.</p>

### 4. Umetatik tabernara lotuta

- **Erref:** ANT-075/006
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:09:42. **Bukatu:** 00:12:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

#### Laburpena:

<p>Igandero izaten zuten erromeria plazan, baina tabernan lan asko egoten zen dantzara joan ahal izateko. Bergarako musika banda etortzen zen herriko jaietan. Umetatik, eskolatik urten amantala jantzi eta tabernan lan egiten zuen. 16 urterekin tabernan egun osoko lanean hasi eta 1969. urteraino jardun zen, taberna itxi zuten arte, atsedean egunik gabe. Bodak ere ospatzen ziren Ondarren.</p>

### 5. Goian jaio eta behean lan

- **Erref:** ANT-075/007
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:12:07. **Bukatu:** 00:14:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Lanbideak » Negozioak, dendak

**Laburpena:**

Ahizpa denak egin zuten tabernan lan, baina Begoñak bakarrik jarraitu zuen amaren ogibidearekin. Anai-arreba denak logela berebean jaio ziren. Ondarre taberna ospetsua izan zen, eta Begoñaren ama oso maitea Antzuolan.

**6. Merienda 'ardotsua'. Italiarrak Ondarren**

- **Erref:** ANT-075/008
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:14:49. **Bukatu:** 00:17:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Aisia » Taberna giroa

**Laburpena:**

Olan lantegiko langileek eguneroko merienda hartzen zuten Ondarren: baso handi bat ardo, ardotan bustitako ogiarekin. Gero kantuekin alaitzen zuten taberna. Mozkor eta karta-jokalari xebreak pasatu ziren Ondarretik. Gerra garaian, bederatzi hilabetez egon ziren Antzuolan artilleroak. Italiarrak Ondarrera joaten ziren jatera, eta ondo portatzen zirela dio Begoñak.

**Transkripzioa**

- Mahai haundi bat geukan han, eta illuntzian urtetetzen zebeu bost eta erdietan fabrikatik, eta merienda itten zebeu, merienda.
- Etxera fan aurretik...
- Hona, gurien. Eta merienda izaten zan baso haundi bat ardao, ogixa busti eta haura izaten zan haren merienda.
- Ogixa ardaotan bustitta?
- Ardaotan busti eta ha merienda, edo sardiña zaharren batzuk eta holaxe. Eta gero danak ardo puxka bat eran itten zebeu, eta moxkortxon bat edo gehixenien harrapatzen zebeu. Kantuan, segiduan kantuan hasten ziren, oso alegria zan gure tabernia, egi-egixa. Zenbat barre itten giñuan, zenbat barre! Beste tipo bat zeguan, (...) gizon bat, eta mozkorrak harrapatzen zittuen kasik egunero eta lagundu in biher izaten jakon hari etxera. Eta beste neska batek eta gure aittak, Jose Marik, bixak heldu bixkarretik eta laguntzen zotsan, eta berak, gizonak, esaten zeban "adelante, atrás no, adelante", esaten zeban berak eta laguntzen zotsen etxeraiño, eta bere giltzia emuten zotsen eta hantxe pasilluan etzanda laga eta etxera atzera etortzen ziren; eta gau guztia han egongo zan haura. Hurrengo egunian zortziretarako lanera. Gero beste batzuk ba, oso zelebria zan beste gizon bat, baserrikua, sindiko edo zeguan udaletxian, eta hari jokuan asko gustatzen jakuan egittia. Eta jokuan irabazten, erderaz be gure antzera zekixen ta, jokuan egittia gustatzen jakon ta irabazten zebanien esaten zeban, "¡nosotros somos los ganaos!", irabazi ein zebela esatearren "¡nosotros somos los ganaos!".
- Guarda zibillak eta etorten ziren? Edo soldauak-edo?
- Bai, bai. Gerra denporan hementxe egon ziren beatzi hillabetien artilleruak, eta harek ere gurera, jatera-eta...
- Franconak?

- Bai, artilleruak, Francon denborakuak. Eta gurera etortzen ziren harek, janta oso ondo itten zebe e?  
- Eta hau be bai?  
- Bai, bastante. Oso estimau zeuken gure ama harek, danak. Italianuak egon ziren.  
- Fazistak.  
- Bai, italianuak eta artilleruak, danak egon ziren hementxe. Eta ba jente... gurekin ondo portau ziren harek.

## 7. Arazorik ez militarrekin

- **Erref:** ANT-075/009
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:17:51. **Bukatu:** 00:21:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

### Laburpena:

Nazionalak etorri zirenean, umeak beste etxe batera bidali zituzten badaezpada, eta gurasoak geratu ziren tabernan. Ez zuten inongo arazorik izan militarrekin. Nazionalak sartu zirenean tiroketak izan ziren Antzuolan, eta norbaitek maristen eliza erre zuen.

### Transkripzioa

-Nazionalak sartu ziranian be akordatzen naiz, gure ama bazekitzu zelako ona zan, gu bialdu giñuzten beste etxe batera, porsiakaso. Eta aitta ta ama bixak hementxe geratu ziren, eta harek bai alde batekua bai bestekuari, danairi ondo in zotsen, danairi ondo in zotsen, danari. Eta gero etorri giñen etxera ta gu be ondo hartu giñuzten ta ez zan izan horrekin problemarik.  
-Hemen Antzuolan etzan egon tiroteorik eta holakorik, ezta?  
-Bueno, ba, sartzeko egunien, Antzuelan sartu ziran egunian, gu beste etxe baten, amandrien eta aittajunen etxian azpitan geunden eta tiroteuak entzun ginduzen. [...] mendi batetik, gure genden [...]botatzen zittuzten. Gero orduantxe maristetako etxia erre zebe, elizia erre zebe orduantxe.  
-Baiña hori erre euein gorrixak edo bestiak?  
-Ba ez dotsut esango, ez dakit! Ez dakit zeintzuk erre zebe, ez dakit.  
-Orduen zuek tiruak entzun zittuein, e?  
-Bai, bai, eta bilddurra ederra pasau be bai, bilddurra ederra pasau be bai.  
-Eta zuk ze uste dozu, lehengo... ez dot esaten gerra denporakua, baiña zu ezkondu ziñen garaixan, berrogeita hemeretxian esan dostazu ezta? Hor, garai hartako taberna girua, oinguakin konparauta hobia zan, txarragua zan, ze diferentzia ikusten dozu?  
-Ze ederra zan haura! Gure tabernia oso alegria zan, oso alegria. Lehen esan dotsuten moduan, Irimoegiko, auzo bat esaten jako, eta handik etortzen ziren, meza nagusixa izaten zan hamarretan. Etortzen ziren gizon harek meza nagusittara, itten zaben rekorridua herri guztien, baiña azkenian gurera jotzen zaben danak. Ardaua eratia, besterik ez, ardaua eraten zebe eta hirurak aldien edo hola akordatzen jakuen, zeozer hementxe jatzia be. Amari esaten otsan, "Guadalupe! Baukon saldarik edo?" eta "bai", eta hiruretan bazkarixa. Gure amari hasarre bat emuten zotsan, zeatikan gustatzen jakon hari be ba seme-alabak eta danok ahal dala batera bazkaltzia, eta ordu haretantxe bazkarixa eskaketan zoskuen. Ni akordaitten naiz ze, gaberarte egoten ziren, eta gero gabian

gehixenak mozkortuta joaten ziren, eta bidian hor, bide bazterretan geratuta eta.

-Lo.

-Bai, hurrengo egunerarte igual.

-Etxera ailllegau ezin.

-Etxera aillau ezin. Bai, bai, zelebriak.

-(...)

## 8. Taberna giroa

- **Erref:** ANT-075/010
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:21:05. **Bukatu:** 00:24:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

### Laburpena:

Tabernan borrokak ere izaten ziren; Loroño zela edo Bahamontes zela... Bost taberna zeuden Antzuolan garai haietan. Gurasoek zahartuz zihoazen, senarra Goizperren lanean ziharduen eta honela Ondarre ixtea erabaki zuten. Umeak tabernan oso gaizki hazten direla dio Begoñak. Hiru seme-alaba izan ditu bera

### Transkripzioa

-Gero beste tipo bat zegoan oso zelebria. A! esan dotsut, "¡nosotros somos ganaus!". Ba kontu horretxek.

-Eta zure garaixan burrukarik eta egoten zan tabernan?

-Bai, bai.

-Zeatik edo borroka itten euein?

-Ba behin akordatzen naiz diskuziño bat. Batek esaten zeban: "¡se vive para comer!", eta bestiak esaten zeban: "¡se come para vivir!".

Horretxeatik burrukia, baiña zelakua?! Zelakua alkarrekin!

-Bai, ukabilka?

-Ukabilka burrukia, bai. Gero beste baten Loroño zala eta Bahamontes zala be bai, burrukia orduan be, bai.

-Bertan, auzoko jentien artien?

-Bai, gure tabernan bertan, bai.

-Zenbat taberna egozen garai hartan Antzuolan?

-Santiagonekua, Eusebionekua, Isidronekua hiru, Antiguana lau, eta guria, bost bakarrik. Oin gehixago dare e? Bost-edo, bost taberna.

- Eta noiz hasi ziren tabernak gehiketan?

- Nik horrek bizi guztien ezagutu nittuan eta.

- Eta horreittatik bestiak jarraiketan daue-edo? Edo zeuek bakarrik itxi dozue?

- Itxi guk, beste danak... ez, Antiguan be ez dago, Antiguan be ez dago, haura be laga zeben. [...]

- Eta zeatik itxi zeuen zeuek tabernia? Umiak-eta?

- Esaten dotsut ba, gizona hasi zan Goizperren lanian, eta gero ya berak ere gogorik ez, eta ama be ya geixotuta, aitta be zahartuta; bueno ba, laga in giñuan. Ez dakot damurik e? Askoz hobeto bizi gara, Jesus!

- Lan gutxiago egindda behintzet.

- Bueno! Umiak oso gehizki hazten dira tabernan, e?

- Hori zeuk dakitzu, ezta?

- Nik dakit hori. Hazi nittuan batzuk eta esaten dotsut ba, egun baten bat topau neban...esan notsan Joxe Mariri, banoia gora porsiakaso, umia lo

laga dot eta. Etorri nitzen gora eta umia kumien azpizen jausitta; tabernan oso geizki hazten dira umiak, oso geizki.

- Zenbat ume hazi (di)ttozu.
- Ba hiru.
- Eta tabernari ez daue...
- (...)

## 9. Tabernako bizimodu gogorra

- **Erref:** ANT-075/011
- **Iraupena:** 0:03:51. **Hasi:** 00:24:17. **Bukatu:** 00:28:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

### Laburpena:

Tabernariaren bizimodua gogorra dela diosku. Senarra Kasetas baserrikoa da, Deustun ikasi zuen eta Ondarren ezagutu zuten elkar. Begoñak eskolako oroimen ona du. Josten eta bordatzen ere ikasten zuten neskek eskolan. Eskulanok arratsaldez izaten ziren. Zapatu arratsaldetan jai izaten zuten eskolan. Irakasle-ikasketak bere kabuz egin nahi izan zituen, baina matematikak ez zituen gainditu Donostian egin zuen azterketan. Laguntzen zion maistrak Antzuolatik alde egin zuenean, Begoñak bertan beran utzi zituen ikasketok.

## 10. Maristen abitu-hartzea

- **Erref:** ANT-075/013
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:31:03. **Bukatu:** 00:32:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

### Laburpena:

Maristen komentuan urtean behin mutilek abitu-hartzea izaten zuten. Ospakizunerako bazkaria Ondarretik eramaten zuten. Uztailaren bian izaten zen. Gauzarik gehienak etxean prestatu eta furgoneta batean eramaten zituzten komentura. Oilaskoak Errotabarriko okindegian erretzen zituzten. Marianistetako ikasleak erdaldunak ziren denak.

### Transkripzioa

- Gero itten giñuana zan, maristak egon ziren hemen, komentua. Eta han urtien behin itten zebeu zera, abitua hartzeia, mutil gaztiak. Eta harutz geuk eruaten giñuan bazkaixa, gero zerbiu bihar izaten geuen bazkaixa. Furgoneta baten plater ta ontzi ta horrek danak gertau eta hantxe zerbitten giñuen bazkaixa.

- Bazkaixa bertan preparaitten zeuein edo tabernan?

- Gehixena etxien gertautu erueten genduen, eta oillaskuak Errota Barrin edo panaderixan erre eta harek han zerbidu, gaiña "dos de julio, dos de

julio". Bai, lan asko egitten giñuan orduan e?

- Orduan maristak abitua hartzen, urtero baten batek hartzen eben?

- Bai, bai, bai, bai, bai. Mutiko pillia, Burgoskuak eta hola ziren, kanpokuak ziren.

- Euskaldunak gutxi?

- Ni ez naiz akordutzen euskaldunik iñobez. Neure akorduan ez.

- Hemen Antzuolarrrik ez zan fan?

- Ez, ez, ez, ez, ez. Geu juten giñen haraxe bazkaixa serbitzera.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-04-29

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com